

Ezker eskuin: formalki aztertuta (III)

Sotilki bezain garbi aitortu beharra dago, eta baita horixe batera gustatzen ez bazaigu ere: ezkerrek nahitaez behar du ideologia. Beraz, totalismoa. Beraz, nahita nahiezkoa du koizidentzia hori eskuinarekin, (Eskuinarekin deusetan ere koizidituko ez lukeen ezker, umekiariako amets hutsa litzateke). Hori bai, desastre bat litzateke, ezker guztia pentsaera totalistaren mende balego, hau da, "ideologiaran" mende. Baina ezkerrean totalismoak, utopiak bezalaxe, ez dauka faltatzerik.

EZKERRAK NAHITAEZKOA DU TOTALISMOA

Uhearen premiek larri bai larri eskatzen dutena, lehenbai lehen programak (parzialak, derrigor) osatzea da, gaur. Ekintzaren artatzea. Ez ideologiari indartzea. Bizi ditugun eta gaitza dotozigen egunek behartzen gaituzte horretara. Baina baita hazaldi berriak abiarazi zuen mugimenduen beraren barneko desarroilo-premiekin ere. mugimendu ipiritual bat izatek egiazki politikoa izatera altega dadin.

Baina premia horiek, eta berorien larritasunak, ezin ahazteraz diezagukete ideologiaren eta totalismoaren premia, ezkerre ezker izateko. Ezkerrek eskuina betetan ukatzen badu, ezker/eskuin banakuntza ere ukatu beharra daduka, gutxienez tendenzialki. Bestela "taktika" hutsetan ibiliko gara beti, benetako pentsamendu politikorik gabe.

"Ideologiak" kontrario gogorrek agertu dira azken aldiaren gure artean, eta ez arrazoirik gabe. Baina horiei garbi eta estalduarik gabe osteratu beharra dago: ideologiarekin bakarrik ez goaz inora; eta ideologiari batera gabe haruntzaxe bertara goaz. Ezkerrek eskuinaren ukazio taktiko soila baino sakonagorik ez badu, erreforma pragmatiko batzuetara baino urrutirago ezin-go da sekula aliatugotiko. Honek esan nahi du, ez bakarrik eskuinaren ukazio absolutua edo ezkerreia ez dela zaila esplikatzen, baizik, are gehiago: ezkerrek ezkerreia, hots, eskuinaren ukazio ideologiko (tendenzialki) absolutoa behar-beharrezkoa duela. Ukazio hura ideologikoa dela, (hori da ezkerrek ezin ahaz dezakeena. Ideologia absolutizatuta, eta ideologia errealdadeekin nahastu (errealdadeetan ez bait dago elkar absolututuki ukatzen duen bi gauzarik). Aitor dezagun, bada, eskual ezkerrek ere behar-beharrezkoak dituela, askotan hain higuigarri eta ernegagarri eta kaltegarri gertatzen ari zaizkigun joera teoriko-ideologiko izugarri radikal horiek ere.

Lehenbai lehen lortu beharrekoa, haien eraginaren mugaketa da, herritar mugimenduen osoak ideologo batzuen jostailu izaten jarrai ez dezan. Hor bait dago gaitza, eta ez "ideologien" esistentzia: gure herrian ideologoez oraindik dadukaten eragin neurrigabearen. Mugimendu ezkeriar herrikoik bat ezin dateke zeharo teorikoen edo ideologoen eskutan egon (gure artean orain arte eta oraindik ere gertatzen den bezala); baina ezta ideologorik gabe esistzerik ere (ideologekin eta "intelektualekin" nazkatuz, batzuek honez gero nahi luketen moduan: ikus, nola "intelektualenganako" eta "ideologenganako" gorrotoa eta arbuioa indartzen ari diren!).

EKINTZALEA ETA INTELEKTUALA

Ez dago ezkerre konprenitzerik, teorikoaren (hemen = intelektuala, ideologoa) eta ekintzalearen artean dagoen erro-errotiko diferentzia eta batasuna ohar-hartu gabe. Edozeinek daki, intelektuala zein erraz eror daitekeen, medio politiko eta ekonomikoak eskutetan dituztenen mende. Zein erraz bihurtzen den nolana hiki agintedunen akolito, aginte hort batzuden

modarena edo prestijioarena besterik ez izan arren. Ekintzan zuzen-zuzen parte hartu ezinik, bere burua ekintza horrekin identifikatzen du, eta ekintzale horien akolito bihurtzen da. Intelektualak, ekintza direktan esku hartu ezin duenean, erraz jotzen du biotako batetara: ekintzaleen morroin huts bihurtzera, edo-ta ekintza horren (hau da, errealdadean) kontrario amorratu eta erabatekotasun geldituzera.

Baina baita adrebes ere. Intelektualak, ekintzan parte har dezakeen, ia beti, bere ginahal guztiak eta gebiago egin ohi ditu, ekintza idealen arabera moldatzen. Eta ekintza guztia lardakatu ohi du. Kolakowski zuzen dio (eta, iragaitzen, irakurleari gustora gomendatuko nioke haren sailera "Intelektualak eta komunista mugimendua", Kolakowski Liburua, JAKIN 1972, or. 213-231): "Intelektual sorketa mailan, aitzitik, guztia berriro azterkatu, guztia zalan-zalan jarri behar dela (ez, noski, guztia gaitzetsi!) konbentziturik egon behar da". Politikoa, aldiz, ezin da horrela ibili: ezin da behin eta berriro dena zalan-zalan par eta deusestik abia. Bestela beti hasieretan ibiliko da, ez du sekula ezer aurreratuko. Politikoa, bada, helburu bat hartuz gero, ekintza bat pausoz pausoz burutu beharko du; eta behin emandako urratsak zein du beharko, hortakoz. Ekintzaren legeak askoz apalagoak eta gogorragoak bait dira, pentsatzearenak baino. Halabaina, intelektualek bere pentsatzea bezain radikal eta aldakor litzateke ekintzarik itxaroten badu, zeruak eta lurak nahastuz bukatuko digu. Orduan dena zalan-zalan jarri eta dena beti berriro aztertu ezetik, dena zeharo gaitzetsi beharko du. Kas-tokien ikusten duguna, adibidez: intelektualek horiek etengabe zalan-zalan jartzea eta azterzea bidezko da. Alegia, zalan-zalan jartze intelektual bat, ez praktikoa. Azkeneko hau ez dago noiznahi eta nolana hiki egiterik, zalan-zalan jartze praktikoa batetarako kondizionamendueti begiratu gabe. Azken-linean, pedagogoi adina politikoei dagokie hori egitea eta, hain zuzen, ekintza hortantxe dabilzan politikoei. Edo, bestela; pedagogoz gainera "politiko" izan beharra dago. Bestela diharduten intelektualekin, zera egin behar da: ilargitik lurrera jektarazi. Eta ez: lehen dauden baino ilargirago bidali.

INTELEKTUALA: MUGIMENDUAREN BARRUAN

Mugimendu bat egiten duena, batez ere ekintzalea da: bera da, mugitzen dena. Eta mugimenduen barruan, ez haren buruan, egon behar luke intelektualek.

Txillardegik behinola esandako hau egia da, eta ez gure errazegi ahaztu behar: "Denbora guzietan, eta partidu eta gizatalde guzietan, ezkerretarago gertatu ohi dira taldeko intelektualek, beren taldea edo haroa baino: Tolstoi, Hugo, Erasmo, Marx, Lammenais, Rousseau... Sartre ta Lefebvre gure guretan (...). Marxistarik gorenena heterodoto gelditu dira: Trotsky, Lefebvre bera; eta kristaurik irakurgarriena elizatik kanpo, edo atarian: Lammenais, Berdiaeff, Teilhard de Chardin, Lubac eta Congar berberak zenbait urtez". Ez genituzke, bada, kondentatu behar gure intelektual batzuk, gure denbora eta gure gaurko ahalak, posibilitadeak baino ezkerretarago badabilza. Kritika ditzagun, hori bai, gure gizarteak eta gure indarrek oraindik jasan litzaketan baino tenzio zailagoak sortzen badituzte. Argitu eta eragin ordez, endreatu egiten bagaituzte. Baina kritika diezagun hori, eta ez beste zerbait. Kritika diezagun, politika egiten edo egin nahiz ibili arren, ez direla batere politikoa, eta —beharbada— politikari enbarazo egiten bakarrik ari direla ere: triste hortan bakarrik direla politikoa.

Zeren-eta, ez mugimendu herritarren puntan eduki eta ez kanpora bota, ezin egin bait ditzakegu intelektualek. Eta bai, salisaren erdi-erdian sar. Orduan, mugimenduen zerbizari izan daitezten, eta mugimenduen

menduari beren irudipen zuzen parte diktatu nahia utz dezaten.

GURE KASUA

Baina gertatzen dena zera da, gure mugimendua oraindik ez dela mugimendu politikoa bilakatu. Oraindik mugimendu ipiritual edo ideal hutsa dela. Eta, horregatik, hipersentikor dela intelektualek esan lezaketene edozeri buruz. Intelektualek, beste edonon posible izango litzatekeen pixu politikoa, gidaritza politikoa, duela oraindik gure herrian. Eta gainera, zenbat eta teologo-antzekoago izan intelektual bat, zenbat eta karismatikokoago eta moralistago, zenbat eta profetikoago batez ere (zenbat eta salbazio garbiagoa predikatu), hainbat arrakasta galantagoa gure baztaretan.


Horregatik gertatu da hainbeste hondamendi mugimendu honetan: politika intelektualek eskutetan egonez gero, ezin beste ezer gerta zitekeelako. Intelektuala, politiko ez beste edozer gauza bait da.

Beraz, gertatzen dena zera da, mugimendu hau lehenbai lehen politikoki bihurtu beharra dagoela: mugimendu hau intelektual batzen mugimendu ez, baina, intelektualek mugimendu baten intelektualek, gerta daitezten.

Hanartean, gure egoeragatik buruzagitza politikoki hori tokatzen zaie intelektualek, politikoa ere izaten saiatu behar lukete. Ikusten dugunez, politikorik (agian) ez izanez ere politikoa gertatzen ari bait dira, beren eskabide eta prediku eta kritikekin. Buruzagitza politikoa parte edukitzeak, berriz, ez abstraktuan predikatzen, geure ahalmenai eta prozesuari neurri hartzera, eta lortu ezinezko ekintza helbururik ez proposatzen, obligatzen du intelektuala. Berdin, geure buruari kaltegarri gertatzen zaion kritikarik ez egitea, etab.

(Jarraitzeko).

JOSE AZURMENDI



Euskaltzaindiko Batzarra

Euskaltzaindiak bere hileroko batzar arrunta egin zuen Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren jauregian, joan den abenduaren 28an.

Jose Maria Lojendio euskaltzainari bere anaia hil zaiolako, atsekabea agertzea erabaki zen.

Liburu-zainak, etxera diren liburuen berri eman zuen. Hoiaren artean, Aita Villasante-ren Axular-en Hiztegia. Liburu honen aurkezpena abenduaren 13an egin zen Iruineko Foru Diputazioan, Axular-i han egin zitzaion gorazarreaz batera. Irigoyen euskaltzain jaunak eskatuz, Aita Villasante-ri lan eskerga honengatik zorionak ematea erabaki zen.

Goizean euskaltzain osoek egindako bilkura bereziaren berri eman zen. Bilkura horretan eskola-hiztegi 7,8 eta 9. zerrendak onartu ziren, eta etxe-barneko beste zenbait arazo erabaki ere bai.

Euskaltzainburu jaunak urtean barneko lanei gain-begiratu bat bota zien. Urteko batzarretan 27 akademi-txosten irakurri dira. Idazkari ordeak 1974. urteko batzarren egutegia aurkeztu zuen. Zortzi batzar arrunt Donostian egingo dira, eta Bilbon bat. Bilkura bereziak hiru izango dira: bat Arantzazun, herri eta herritarren izendegia osatzeko egingo diren jardunekin batean; beste bat Erri-oxako San Millan de la Cogolla-n. hango eskual esaldien mitalagarren urteburua ospatzeko, eta bertan Irigoien eta Merino Urrutia, azkenik, Urdazubini, Axular-en sorlekuan, Nafarroako Foru Diputazioak Axular-i egin dion gorazarrearen segida bezala.

Jokin Zaitegi euskaltzain laguntzaileak txosten bat irakurri zuen Platonen obrak euskeraz emateari buruz. Protogoras-en elkar-hizketaren zati bat irakurri zuen euskerara itzulia. Gero solasaldi bat izan zen itzulpen lan hauen nola egin eta abar.

(Euskaltzaindiko Prentsa Bulegoaren Agiria)

ERLOJU ETA BITXITEGIA

Eduardo Chopetia

Getaria, 10 - Urrutizkifia: 417751 - Etxeko: 422700 - DONOSTIA



YOGUR
GURELESA
GOGOZKOENA

